

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



PASCUAL MARIN. FOTO MARIN. KUTXATEKA.

UNION ARTESANAREN DANBORRADA, DUELA MENDE BAT

Duela 100 urte, Primo de Riveraren diktaduran Espainiako armadak Rif inguruko zenbait herritako biztanleria zibilaren aurka egindako bereizi gabeko bonbardaketen berri eman zuen euskal prentsak. Bonbardaketa horiek San Sebastian egunaren bezperan eta aurreko egunetan gertatu ziren, eta dozenaka hildako eragin zituzten. Egunkari horiek, 1925eko urtarrilaren 20ko danborradarako donostiarrek zuten ikusmina ere aipatzen zuten. Atera zen lehen danborrada Euskal Billera izan zen, San Sebastian eguneko 05.00etan, eta hilaren 21eko prentsaren arabera, Alde Zaharra jendez lepo zegoen. Donosti Zarraren danborradak ere, Antigua auzoan 06.00etan atera zenak, jendetza erakarri zuen. Goiko argazkiak 07.00etan atera zen Union Artesanaren danborrada erakusten du, "La Armonia" musika bandak lagunduta. Danborrada honek Donostiako Alde Zaharreko kale nagusiak eta erdialdeko kale batzuk zeharkatu zituen, Urbietara kalera iritsiz. Datu bitxi gisa, "La Voz de Guipuzcoa" egunkariko kazetariak, hilaren 21eko artikulua- ren amaieran, ibilbide osoan zehar Union Artesanaren danborradaren atzetik joan zen poliziari erreferentzia eginez, haxe gaineratu zuen: «Beren postuetan gelditu zitezkeen, danborrariak ez baitute inoiz zaindarien beharrik».